

MERKATU - SEGMENTAZIOA

Gure enpresak ekoizten dituen parkeak hartzaile publikoak nahiz pribatuak izango ditu. Publikoak udaletxeak izango dira eta pribatua berriz, erosi nahi duen edonor. Kontuan hartuko dugu Espainiako biztanleriaren %15,43 haurrak direla (0 -14 urte) eta hauek izango direla gure produktuaren kontsumitzaileak.

Datu hauen arabera esan dezakegu beraz, populazioaren ehuneko garrantzitsu batek erabiliko duela produktu hau, gehien bat haien aisialdi garaian. Izan ere, gaur egungo haur gehienak gogoko dute parkeetara joatea.

Garrantzitsua da haurrek bizitza aktibo bat eramatea haien osasunaren hobe beharrerako. Gainera ezagunak dira etxean gailu elektronikoen jolastuz gelditzeak dituen arriskuak, batez ere kasu hauetan egiten den bizitza sedentarioa dela medio. Horregatik Biurrienea enpresak proposamen hau luzatzen du: parke ekologiko, garbi eta osasuntsu bat, bai pertsonetikiko eta bai ingurugiroarekiko.

Proposamen hau modu ezberdinetan zabalduko dugu, pertsona eta giro diferentetan. Modu hauek hurrengoak izango dira: iragarkien bidez (telebista eta irrati lokaletan), eskuorrietan, sare sozialen bidez, udalerrri ezberdinetako udaletxetako harreman batzarrekin bilduz, kirol mota ezberdinetako ekipazio eta instalakuntzetan iragarriz eta abar.